


# da nola

## ZURE SAHETSEAN

Zure sahetsean
ibiltzen naizenean
hatsa luzatzen zait,
ezpainak lotzeko
eskuak tinkatzeko
zangoak korapilatzeko
azken batean
gorputzak josteko
gutizi hurbila daukat.

zure sahetsean
hiltzen naizenean
hatsa laburtzen zait.
ezpainak zauritzeko
eskuak larrutzeko
zangoak hausteko
azken batean
gorputzak errausteko
gutizi urruna daukat.

zure sahetsean
ibiltzen eta hiltzen
naizen bitartean
bizi nahi dut bizi...

Hitzak: Itxaro Bordaren 'Azken hortzadak III' poeman oinarritua.
Musika: Inun.

## A TU LADO

Cuando camino
a tu lado
respiro largo
y tengo el capricho intimo
de juntar los labios
de ceñir las manos
de anudar los pies
al fin y al cabo
de tejer nuestros cuerpos.

Cuando muero
a tu lado
respiro corto
y tengo el capricho muy remoto
de herir los labios
de arañar las manos
de quebrar los pies
al fin y al cabo
de destruir nuestros cuerpos.

Mientras que camino
y muero a tu lado
quiero vivir
y vivir aún…

Letra: basada en el poema 'Azken hortzadak III' de Itxaro Borda.
Música: Inun.